

Irurtzunen, bi mila eta zortziko abuztuaren hemeretzian, arratsaldeko zazpiak direnean, Ezohiko Bilkura egitearren Irurtzungo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Arrate Zabalo Ochotorena
Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay García
Jose Luis Viñas Estudillo
Jose Peinado Cuesta
Maria Nieves Uterga Juango
Eduardo Murugarren Frances

Eta idazkaria naizen hau, Santos Iragui Hualde.

Ezin etorria adierazi dute Luis Enrique de la Calle Morenok eta Francisca Arruabarrena Quintanak.

AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2008ko uztailaren 16an egindako Bilkuren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharrik egin ez zaionez, aho batez onartu da.

ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA

2008ko uztailaren 16az geroztik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

2006ko KONTUAK

2006. urteko Kontu Orokorreari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Kontuen Batzorde Bereziak 2008ko abuztuaren 19an egindako bileran onartutako proposamena aztertuta, 2006. urteko kontu Orokorrak onartzea erabaki da aho batez.

UC-2 UNITATEAN UDAL PLANA ALDATZEA HASIERA BATEAN ONARTZEA

UC-2 Unitatean Udal Plana aldatzeko proiektuari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2008ko abuztuaren 12an egindako bileran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da aho batez, alegia Udalbatzako kide kopuru legalaren erabateko gehiengoz: UC-2 Unitatean Udal Plana aldatzeko proiektua, Fernando Andion Carballedak sustatua, hasiera batean onartzea.

UDAL LURSAILA SALTZEA, ERRENTAN EMANEN DIREN BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK ERAIKITZE ALDERA

Irurtzungo Udal Planeko S1-U8 Unitatea birpartzelatzearen ondorioz sortutako 3 zenbakia duen lursaila, Errentan emanen diren babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratua, saltzeari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak abuztuaren 12an egindako bileran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da aho batez, alegia Udalbatzako kide kopuru legalaren erabateko gehiengoz:

1.- Udal Planeko S1-U8 Unitatea birpartzelatzearen ondorioz sortutako 3 zenbakia duen lursaila (Iruñeko 3 zk-ko Jabetza Erregistroan 4117 Liburukian, 15. liburuan, 22. orrian, 940 finka gisa erregistratua) besterengarria dela adieraztea.

2.- Arestian deskribatutako lursaila enkante bidez saltzeari ekin: hasierako enkante-prezioa 522.699,77 euro da, eta errentan emanen diren babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen bideratuko da.

3.- Lehiaketa zuzenduko duen Baldintza Plegua onartzea.

4.- Enkantea esleitzeko Kontratazio Mahaia izendatzea. Mahaia honako hauek osatuko dute: Juan Jose Iriarte Vitoria -mahaiburua- eta Francisco Goicoechea Arbizu, María Nieves Uterga Juango eta Eduardo Murugarren Frances -mahaikideak-; idazkaria, berriz, Udalekoa bera izanen da.

Erabakia hartuta, Murugarren jaunak zalantza egin du proposamenak aurkezteko aurreikusitako 20 eguneko epea aski ote den enkantean interesa izan dezaketen enpresentzat.

Iriarte jaunak adierazi du halako sustapenetan diharduten enpresek esperientzia handia dutela lehiaketa horietan, eta, haiekin izandako elkarriketetan, ez diotela inolako eragozpenik jarri epeari.

INFORMAZIO BATZORDEEN OSAERA BERRIA

Maria Nieves Uterga Juango zinegotziak bere kargua hartuta, Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko abuztuaren 12an egindako bileran onartutako proposamena aztertuta, aho batez onartu da Gizarte Ongizate eta Emakumearen arloa Batzorde informatiboa eta Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzorde informatiboa berrosatzea, horietan partaide Uterga andrea izan dadin.

OROIMENAREN PARKERAKO DIRU-LAGUNTZA

Alargunen Herria Elkarteari eta Nafarroako Fusilatuen elkarteari diru-laguntza emateari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko abuztuaren 12an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, Nafarroako Fusilatuen Elkarteari eta Alargunen Herria Elkarteari 1.400 euroko diru-laguntza ematea erabaki da, 2008ko Aurrekontuko 121.489 partidaren kargura. Alde bozkatu dute Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas eta Murugarren jaunek, eta Zabalo, Ongay andreak. Abstentziora jo dute, berriz, Peinado jaunak eta Uterga andreak.

Akordioa hartu aitzin, Iriarte jaunak honako hau irakurri du:

“Frankismoaren biktimen lagunen eta etxekoen elkarteek Sartagudan ("alargunen herria") frankismoaren biktimen oroimenezko parke bat prestatzeko erabakia hartu zuten.

“Oroimenaren parkea” deitu dute. Fusilatuei, fusilatuen etxekoei eskainitako aitortza eta omenaldi publikoa.

Entitateen eta norbanakoen laguntzarekin eraikitako parkea.

Ezinikusirik gabe, gorrotorik gabe, mendeku nahirik gabe eraikia, baina frankismoan fusilatu zituzten nafar askoren omenaldia izateko asmo irmoarekin, garai dramatiko, zentzugabe, eta berriro ere errepikatzerik ez dagoen garai hura oroimenean gorde dadin.

Duintasunerako, oroimen historikorako parkea.

Irurtzungo udalak bat egiten du beste udal batzuekin, eta ekimen horretan parte hartuko du 1.400 € jarrita. Halaber, urrian hainbat ekitaldi antolatuko dira, eta amaiera "Oroimenaren Parke"ra eginen den bisitan emanen zaio.

Murugarren jaunaren iritziz, erabaki honekin Irurtzongo Udalak zuen zorra kitatuta geratzen da; izan ere, udal anitzek ez bezala, udal honek ez baitzuen bere garaian erabaki hori hartu. Horrez gain, esan du Nafarroan eraildako eta errepresioak zigortutako guztiei nahitaez egin beharreko omenaldia zela, haiek gerra frontearen ere ez baitzeuden.

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Ez dago.

GALDE-ESKEAK

Murugarren jaunak esan du hainbat kexa jaso dituela herriko espaloietan bizikletak modu arriskutsuan ibiltzen direlako.

Murugarren jaunak, halaber, hizpide du Construcciones Amikol, SLrekin sinatu beharreko Hirigintza Hitzarmena. Hitzarmena hobetzeari buruzko afera Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2008ko abuztuaren 12an egindako bilkuran aztertu zen, eta horretan jakinarazi zen enpresak dagoeneko aurkeztua duela etxebizitzak eraikitzeko proiektua.

Iriarte jaunak esan du hurrengo bilkuran aztertuko dela aipatu hitzarmena hobetzearen afera.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zazpiak eta berrogei minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.